

## **DORTOKEN SEKRETUA**

Asier Badiola Prieto

*Lezo*

Zaila da hautematea, hodei zuri,  
zure magalean dena da desberdin,  
bi gehi bi lau izan daiteke, baina baita bost ere.  
Urdin duzu beti lagun,  
eta hark ez zaitu inoiz bereber utziko.

Rapsodia baten bidez jabetu naiz egunsentian,  
badoala,  
ez dela itzuliko,  
Eta zu ere bazoaz,  
haizearekin batera,  
nigandik urruntzen zara.

Edgar Allan Poek badaki, bai, beldurra zein den ona.  
Azken finean, larderia begiradak besterik ez baikara,  
ea noiz bueltatuko zaren ikaraz.

Zuk agian ez duzu ezagutu,  
hodei grisaxka kuttun horrek,  
beti goibel zaudenak,  
baina malkoek min egiten dute,  
arrosen tankera,  
ez baitago arrosarik arantzarik ez duenik.

**P**etalo bat erortzen zaienean,  
lehorrak eta hezeak geratzen dira,  
goibel, isil-isil, agoniaren zalapartak itota,  
kaiola hotz eta ilun batean,  
bere kolore argitsuaren bila.  
Ez itxaron hosto-lore maite,  
haizeak ez du eta norabidea aldatuko.

**A**saldaturik noraezean zauden hodei beltz,  
lodi eta ahul, mehe baina indartsu.  
**I**noiz egingo al duzu putz niregatik?  
Zuhaitz handiena ito dezakezu,  
izana xurgatu,  
egurra eta zuhaitz forma haserrarazi.  
**N**egar-arpuluak jaurtitzea duzu bertute,  
indar handiz,  
min egiten duten arte,  
hosto erortze bakoitzean milaka malko erortzen  
baitira.

**G**edar eginez, zetazko gorputza hodei beltz bihurtu  
zen,  
haizeak kutsatuta ezin itzulirik  
Fusilean balak izan ez arren,  
tirokatzeaz zegoen,  
zuhaitz guztiak harekin batera eramateko zorian.  
Hosto gizagaixoak.

**O**rtzia bera ere beldur zegoen.  
Inoiz izandako hodeirik beltz eta bortitzenak,  
ilun eta kementsuenak,  
lodi eta gihartsuenak,

ekaitza, tximistak eta zalaparta orro batez eragin  
zuen,  
isiltasun jasanezina sorraraziz.  
Denbora geldituz.

Zuhaitzak biluzik,  
non ote zeuden hosto madarikatuak?  
Zergatik ireki zenituen hegoak?

Oskarbi dago zerua.  
Aingeruaren begi kolorekoa,  
hegan ihesik.  
Enul ohe gainean,  
txorien kantuez horditurik,  
aldaketa nabari da,  
norabidea aldatu du haizeak.

Hosto txiki eta ahula ezarri zait bularrean,  
leiho mehetik haizearekin batera sartuz ustekabeen.  
Egin ezazu irri,  
hosto-lore maite,  
kaiola hautsi egin da zure kolore argitsua ikustean.  
Gezurtiak dira hodeiak,  
haizearen bakardadearen magalean.

Hodeiek haizearekin bat ihes egin dezakete,  
aingeru hegadunekin,  
gorroto eta malkoekin,  
nahiz txuri edo beltz izan,  
bizkor- bizkor.  
Baina azkarrenak,  
dortoken sekretuak dira.

Nirea hau da:

*“Aurkituko zaitut,  
hegoak irekiz eta putz eginenez,  
zure ezpain gozoetan hegan egin arte”.*